



Adolfo Arejita (Bilbo, 1953) euskaltzain oso izendatu zuen Euskaltzaindiak ekainaren 25ean Larresoroko Herriko Etxean egindako osoko bilkuran. Adolfo Arejita Filologia eta Letretan lizentziatua da eta Euskal Filologian doktorea. Deustuko Unibertsitateko irakasle da eta Labayru Ikastegiaren Euskal Hizkuntza sailaren zuzendaria. Hainbat lan ditu argitaraturik, bai testu zaharren gainean eta bai gramatikari buruzkoak ere. *Litterae Vasconicae / Euskeraren Iker Atalak* aldizkaria ere zuzentzen du. Euskaltzain urgazle da 1983tik eta Euskararen Aholku Batzordeko kide izana (1984-1989).

Andolin Eguzkitza zenaren hutsunea beteko du Adolfo Arejitak.



Antso Jakituna Fundazioaren ondarea Liburutegi Digitalean da joan den ekainaz gero. Eusko Jaurlaritzak eta Antso Jakituna Fundazioak berak sortu dute funts digitala (www.euskadi.net/LiburutegiDigitala) eta, beraren bidez, 3.000 izenburu inguru eta 800.000 irudi baino gehiago kontsulta daitezke bertan, Interneten laguntzaz. Profesionalei zein herritarrei zuzenduriko ataria da, erabilera erraz eta azkarrekoa.



Euskarak Euskal Herritik kanpoko euskaldunen artean bizirik iraun dezan lanean ari da aspaldi Kultura Saila. Helburu hori gogoan harturik, AEBetan, Mexikon eta Venezuelan izan zen Kultura sailburua uda baino lehen. AEBetan, besteak beste, euskara garatzeko plana azaldu zuen Ipar Ameriketako euskal erakundeen (NABO) batzar nagusian Bakersfield-en (Kalifornia) eta Boiseko (Idaho) Unibertsitateko arduradunekin hitz egin zuen Euskal Ikasketak abiarazteko bertan.

Mexikon, hitzarmenak sinatu zituen hiriburuko Unibertsitate Metropolitanoarekin eta Iberoamerikako Unibertsitatearekin, bai eta Mexikoko Liburutegi Nazionalarekin ere. Venezuelan, euskara Internet bidez ikasteko *Boga* programa aurkeztu zuen Kultura Sailaren ordezkariitzak Caracas eta Valentziako euskal etxeetan.



Azken aldi honetan euskalgin-tzak puntu-puntako bi pertsona gehiago galdu ditu: Agustín Zubikarai eta Imanol Larzabal, bata kazetaritzan eta literaturan jardundakoa, eta bestea musikan.

Agustín Zubikarai (Ondarroa, 1914 – Galdakao, 2004) uztailearen 12an hil zen Galdakako ospitalean. 89 urte zituen euskal idazleak eta oso gaixo zeramatzan azken biak. Idazlea, kazetaria eta euskaltzaina izan zen. Hainbat generotako liburuak utzi zizkigun baina

antzerkia eta eleberria landu izan zituen bereziki. Kantu batzuen letrak ere idatzi zituen, *Kapitain pilotu* abestiaren letra, esaterako. 36ko gerran, *Eguna* egunkarian lan egin zuen, eta beranduago, *Gudari*, *Euskadi* eta *Argia*-n. Gazteei idazteko zaletasuna piztu nahi izan zien beti; bera ere gaztetan hasi baitzen idazten. 19 urte zituela, *Jaungoiko zale* eta *Ekin* aldizkarietan hasi zen lanean.

Euskaltzain urgazle izan zen eta euskaltzain ohorezko izendatu zuten 1993an, Bernardo Estornes eta Martín Ugalderekin batera. (Agustín Zubikarairi buruzko berri gehiago Bide gileak bilduman: www.euskadi.net/euskara).

Egun batzuk lehenago, ekainaren 25ean hil zen Imanol Larzabal (Donostia, 1947 – Orihuela, 2004) kantaria. Argia dantza taldean hasi zen musika lanetan. 1968 inguruan, Burgosko epai-keta garaian, erbestera joan behar izan zuen. Bi disko editatu zituen ezkutuan eta Europar jardun zuen kantari, Francoren kontrako kontzertuetan. 1972an *Orain borrokarenean* kaleratu zuen, legezko lehen diskoa, eta beste bat gero: *Herriak ez du barkatuko*. 1976an Euskal Herrira itzuli eta kantagintzari emana bizi izan zen. Hainbat lan kaleratu zuen harrezkero eta euskal kantari ezagunetarikoa egin zen.



Goian beude!

Euskaraz blai! kanpaina abiarazi dute Bizkaiko 46 udalek, euskararen jarraipena familiaren bidez bultzatzeko asmotan. Alkarbide-k, Bizkaiko Toki-Erakundeen Euskara Zerbitzuen bilguneak, koordinatu du kanpaina eta haur jaioberriak edo 1-6 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoei zuzendurik dago. Kanpaina aitzakia, eta bereziki gurasoei laguntzeko, euskara sustatzeko aholkuak biltzen dituen liburuxka eman dute argitara. Gutxi gorabehera Bizkaiko 20.000 familiak jaso du kanpainaren berri bere etxean bertan.



Euskararen aldeko bi jai garrantzitsu izango dira hurrengo hilean. Urriaren 3an, Gipuzkoako ikastolen festa egingo da, Kilometroak 2004 (www.kilometroak.com) aurten Gipuzkoako kostaldean, Orio eta Zarautzen, "Itsaso zaharra, olatu berria" lemapean. Handik hamabost egunera Nafarroako ikastolen txanda helduko da, Nafarroa Oinez (www.nafarroaoinez.net) urriaren 17an Lizarran egingo dena, "lizarra@euskaraz.bai" izenburupean.



Euskararen azpiegiturak berritzen ari direla iragarri genuen aurreko alean, eta Bilboko San Inazio auzoan ireki den "Euskararen Etxea" eta Andoainen egokitu den "Mintzola Etxea" ekarri genituen lerrootara. Bide berean, egoitza berria inauguratu dute Gipuzkoako hiriburuan Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkarteak, **Irutxulo** astekariak eta **Gaztetxulo** hilabetekariak. Donostiako Puio auzoan da egoitza berria, Katalina Elizegi kaleko 36. zenbakian. Urte askoan batetik bestera ibili ondoren, bertan izango dute egoitza Bagera-k eta bi aldizkariak, Donostiako udalak utzirik.



Ongi etorri izeneko glosarioa argitaratu du Uztarri Kultur Taldeak, euskaraz,

gaztelaniaz, hassanieraz eta arabieraz. Hiztegi txiki honek eguneroko bizimoduaren erabili ohi diren 600 hitz biltzen ditu, uda aldian Saharako 450 haur etxean hartzen dituzten euskal familiei zuzendurik, bereziki. Glosarioak bi komunitateen arteko harremanak erraztea du helburu.



EDB 1.0, euskararen datu estatistikoen biltegia, aurkeztu du SEI elkarteak. Euskararen datu-basea honek Eusko Jaurlaritzaren, Nafarroako Gobernuaren, Foru Aldundien eta hainbat udal, mankomuni-

tate eta elkarteren ikerketak eta datu-bilketak batu nahi ditu. Datu-iturri nagusiak, berriz, hauek ditu: EUSTAT, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Nafarroako Estatistika Institutua, Espainiako Estatistika Institutu Nazionala, Frantziako Estatistika eta Ekonomia Ikerketarako Institutua eta SEI elkarteak. Datu-biltegia erabilera publikokoa da eta www.sortu.org/edb helbidean kontsulta daiteke.



Joseba Jaka literatur bekaren bosgarren deialdia egin du Euskalgintza Elkarlanean Fundazioak (www.elkarlaneanfundazioa.org). 70.000 euro banatuko

dituzte eleberria, poesia, gazte literatura eta saiakera ataletan. Lanak bidaltzeko epea abenduaren 19an itxiko da.



Era berean, Eibarko udalaren Euskara, Kultura eta Hezkuntza Zerbitzuak literatura eta kazetaritza lanetarako Juan San Martín bekaren deia egin du, euskarazko ikerketa

sustatzeko eta Juan San Martín ikertzailea omentzeko. Irailaren 9tik urriaren 10era arteko epean aurkeztu behar dira eskaerak, Eibarko udaletxean. Informazio gehigarria euskera.ei@eibar.net helbidean. Eibartar ospetsu horrek, era berean, berariazko omenaldia jasoko du laster batean, izan ere Eusko Ikaskuntza - Euskadiko Kutzaren Giza, Gizarte, Kultura, Arte eta Zientzien saria emango baitiote.



Veus paraleles, Pirineoak - Pirineus, d'una riba a l'altra. Kataluniako eta Euskal Herriko zenbait poetak emanaldia egin zuten Tarragonan maiatzaren 26an, Bartzelonako Udalak eta bertako Kultura Institutuak

antolatutako *Set dies de poesia a la ciutat* izeneko jardunaldien barruan. Arantxa Urretabizkaia, Jean-Louis Davant, Felipe Juaristi eta Tere Irastortza izan ziren bertara gonbidatu zituzten euskal idazleak.



Literary Translation Summer School jardunaldiak egin ziren uztailearen 4tik 10era Ingalaterrako East Anglia Unibertsitatean. Nazioarteko hainbat idazle, itzultzaile, profesional eta argitaratzailek hartu zuten parte saioetan. Gure arteak, hantxe izan ziren Aurelia Arkotxa, Luisa Etxenike, Amaia Gabantxo eta Mari Jose Olaziregi. Jardunaldietan, arabierara, gaztelaniara, frantsesera, italierara edo euskarara itzultzeko diren arazoak aztertu zituzten adituek.



PEN (Poets, Playwrights, Essayists, Editors and Novelists) munduan zehar diren idazleen adiskidantza eta lankidetzatza sustatzea helburu duen elkarteak da, 1921ean Londresen sortua. 1951n, PEN Euskal Bilkura abiarazi zuten Andima Ibiñagabeitia, Jokin Zaitegi, Jon Mirande, Federico Krutwig, Txomin Peillen eta beste zenbait idazleek. Asmoak asmo, erakundeak ez zuen iraun. 1987an bigarren ahalegina egin zuten Euskal Herrian, bizpahiru urtez lanean jardun baina, aurrera egin ezinik, bertan behera geratu zen PEN elkarteak. Aurten, hirugarrenez, Euskal PEN Kluba eratzeari ekin diote euskal idazleek, apirilaren 23an sortze batzarra eginik. Laura Mintegi da Elkartearen Lehendakaria, Txomin Peillen ohorezko lehendakari delarik.




ERABILERAREN TIPOLOGIAREN MAPA


Laburbilduz, erabileraren bilakaera eta egungo egoera erabat desberdinak dira Pirinioen alde batean eta bestean: Iparraldean egoera kezagarria da, eta euskararen erabilera gizartetik desagertzea nahi ez badugu premiazkoa da hori zuzentzeko jarduerak abiaraztea.

Pirinioen hegoaldean ez dago egoera homogeneousik. Nafarroan erabilerak ez du gora egin baina egonkortu egin da, eta, Iparraldean ez bezala, horrek lasaitasunez jokatzeko aukera ematen du. Hala ere, plangintza zehatz eta sakon baten beharra dago, erabilerak aurrera egingo badu.

Azkenik, EAEko egoera orokorra itxaropentsua da, eta euskararen erabileraren aurrerabideari dagokionez baikorrak izan gaitzke. Nolanahi ere, arduraga-bekeria litzateke konfiantza gehiegi izatea; izan ere, euskara gaztelania baino maizago erabiltzen dutenen datuak, edo bietan maila berean mintzatzen direnenak, apalak dira oraindik, nahi genukeen baino apalagoak. Hori dela-eta, orain arteko ahaleginari eutsi egin behar zaio, behintzat.



Avata: Euskal Herriko Soziolinguistika Institutua (1991 eta 2001). Hizkuntza politikanako Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritzak



Bonaparte ondareko Beskuizkribuak bildumaren edizio digitala argitaratu du Deustuko Unibertsitateak Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz. Bonaparteren bilduma Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien

Liburutegietan eta Nafarroako Artxibo Foralean banaturik dago eta 1992tik 1999ra, 26 liburukitan argitaratu zituen Deustuko Unibertsitateak. Orain, edizio digitalizatuan ikusi du argia paperean kaleratu zen bilduma osoak, baina zuzendua.



Sakanako Hiztegi Dialektologikoa argitaratu dute Nafarroako Gobernuak eta Euskaltzaindiak. Jose Luis Erdozia da lanaren egilea eta, bertan, Sakana haraneko hizketari dagokion lexikoa biltzen da. Jasotako hitzak, gainera, aztertu egin ditu Erdoziak eta hitz sarrera bakoitzari azalpena eman.

Arno Peters-en maparen euskarazko bertsioa

argitaratu du Bakun itzulpen zerbitzuak, Eusko Jaurlaritzaren, Elhuyar Fundazioaren eta gobernuz kanpoko hainbat erakunderen laguntzaz. 70eko hamarkadan, Arno Peters (1916-2002) historialari alemaniarrak munduko mapa berria egin zuen, hainbat ikerketa egin ondoren. Mundua tamaina errealagoan irudikatzen du mapa honek.





Egun batzuk barru Kulturaren Euskal Plana onartu eta aurkeztuko du Eusko Jaurlaritzak. Plan Estrategikoa da bere zentzu osoan: euskal kulturaren gainean ikuspegi estrategikoei, jarduera irizpideei eta lehenetasunei buruz eragile publiko eta pribatuen arteko adostasuna islatu nahi du.

Kulturaren Euskal Kontseiluak eta Batzorde Iraunkorrek parte-hartzean oinarritutako metodologiaren bidea aukeratzea erabaki zuten hasieratik, horrela, lehen unean osatutako ponentziak 19 taldetan aztertu eta aberastu ziren, kultur ondarean, sorkuntzan eta arte adierazpenetan zein kultur industrietan ari diren ia 300 pertsonaren ekarpenekin. Oinarri honekin hezuramaitu du Plana Kontseiluak, urteroko ekintza-planak zehaztuz, 2007 arteko betebeharreko ekintzak finkatuz eta 2015 arteko jarraibideak emanez.

Honako hauek dira planaren ardatz estrategikoak: kulturaren euskal sistema eraikitzea; kulturaren egoera eta bilakaerari buruz informazioa izateko eta segimendua egiteko sistema sortzea; politika publiko berriak ezartzea; kultur ondarea, arteak, kultur industriak eta balio-kateak sustatzea; kurgintzan euskararen erabilera indartzea; kulturaren garapena gizarte-kohesiorako ardatz bezala sustatzea; sorkuntza eta produktzioa sustatzeko teknologia berriak eta adierazpen formak berreskuratzea eta egokitzea; euskal kultura mundu osoan zehar zabaltzea.



Euskara finantza munduan areagotzeko bi ekimen berri aurkeztu dira. Batetik, Euskadiko Kutxak eta Beasain, Idiazabal, Lazkao, Ordizia eta Ormaiztegioko udalek hitzarmena sinatu dute euskararen erabilera zabaltzeko eta indartzeko. Sinatutakoaren arabera, batetik, harremanak euskaraz gauzatu dituzte erakunde horiek; bestetik, euskara ahalik eta gehien erabiltzen saiatuko dira lan esparru guztietan; gainera, bost udal horietako bulegoetan euskararen presentzia handitzeko ahalegin berezia egingo du Euskadiko Kutxak.

Norbolsa Broker enpresak, berriz, euskarari leku egin dio bere web gunean (www.norbolsa.es).



75 urte dira Bitor Gari-taonandia (Zaldibar, 1876 – Donostia, 1929) hil zela.

Argia aldizkariaren sortzaileetarikoa bat eta bertako zuzendaria izan zen. Antzerkigile nabarmendu zen. Obrarik aipagarrien artean dira, adibidez,

Iziartxo. Bi egintza'dun antzerkia; Aitona ta billoba. Bi atal'dun antzerkia, eta Ongillearen sariya. Musikari ere heldu zion eta *Euzkal-Abetziak* bilduma edo "Or zaude Jesus" kanta utzi zizkigun.

Haren biografiaren berri izateko, jo Bidegileak bildumara (www.euskadi.net/euskara) edo www.armiarma.com/literaturarenzubitegia helbidera.



Euskarazko Haur eta Gazte literaturaren aldeko elkarte da Galtzagorri (www.galtzagorri.org). Idazle, ilustratzaile, irakasle, liburuzain, itzultzaile, liburu saltzaile eta beste hainbat lagunek osatzen dute elkarte eta askotariko ekintzak burutzen dituzte urtean zehar. Besteak beste, euskaraz idazten duten idazleak proposatzen dituzte Espainian eta nazioarte mailan antolatzen diren zenbait sariketatan.

Argitalpenei dagokienez, berriz, Euskal idazlearen katalogoa eta urtean bitan kaleratzen den *Behinola* aldizkaria dira aipagarrien.



Euskarazko literaturaren zabalkundea gero eta handiagoa da. Donostiako Udalaren Euskara Patronatoak *Ilargiak baleki* izeneko bilduma argitaratzeari ekin dio. Bildumaren helburu da euskal poeten lanak gazteei modu erakargarrian aurkeztea. Lehenengo bi lanak Lizardiri eta Lauaxetari buruzkoak dira eta liburuarekin batera, CD bana ere badakarte.

Beste alde batetik, euskal poesiaren ataria zabaltzeko sarea Susa argitaletxeak www.basquepoetry.net helbidean. Bertan, XV. mendetik hona 200 poetaren 1.100 poema jarri ditu Interneten eta, jatorrizko testuarekin batera, ingelesezko, gaztelaniazko, katalanezko, alemanezko eta frantsesezko itzulpenak ere erantsirik datoz zenbaitetan.

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia-San Sebastián, 1 / 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba) / Tel.: 945 01 81 16 • e-posta: l-sosoaga@ej-gv.es